

Arabar Errioxa eta Mendialdea

Eskualdeetako bertso bilduma

2015-2016 ikasturtea

---

# AURKIBIDEA

## ARABAR ERRIOXAKO IKASTETXEAK

- 3. orrialdea.....Lantziego ikastola – Lantziego – 5. /6. maila
- 4. orrialdea.....Assa Ikastola – Lapuebla de Labarka – 5. maila
- 5. orrialdea.....Assa Ikastola – Lapuebla de Labarka – 6. maila
- 6. orrialdea.....San Bizente Ikastola – Oion – 5. maila
- 7. orrialdea.....San Bizente Ikastola – Oion – 6. maila
- 8. orrialdea.....Bastida Ikastola– Bastida – 5. maila
- 9. orrialdea.....Bastida Ikastola– Bastida – 6. maila

## ARABAKO MENDIALDEKO IKASTETXEAK

- 10. orrialdea.....Maeztu herri eskola—Maeztu - 5. maila
- 11. orrialdea.....Mendialdea ikastetea - Kanpezu - 5. maila
- 12. orrialdea..... Mendialdea ikastetea - Kanpezu - 6. maila

## BERTSO-ESKOLAK

- 13. orrialdea..... Kontaktuak



**Lantziogoa ikastola – Lantziogoa**  
5. eta 6. mailak

### BERTSO ASMAKIZUNAK

Horrelakoak munduan  
Oso gutxi dira  
Ipiniko al gara  
Belarriei begira  
Berari aurpegia ikusi  
Zoaz urrutira  
Oso handia da ta  
Sabanen bizi da

Begiratzen zara ta  
Ikusi hobeto  
Batzuetan aldatu  
Egiten ederto  
Bere aurrean jarri  
Ta hobeto hasteko  
Birritan begiratu  
Polit ikusteko

Sua hasten denean  
Klasean barrena  
Gauza gorria da ta  
Erre ez dadin dena  
Bizitza salbatzeko  
Gurea da onena  
Laino baten antzeko  
Botatzen duena

Ez da polit – polita  
Ta ezta ere itsusi  
Horrekin ikusten da  
Guztia berezi  
Sagu-zaharrak badoaz  
Bai hortik ihesi  
Beti gurekin dago  
Eta ezin ikusi



**Assa ikastola – Lapuebla de Labarka**  
5. maila

OPORRETAN

Miamiamira joan gara  
gu oporretara  
goizean ta gauean  
joan gara hondartzara  
beraiek ingelesa  
eta guk euskara  
ez gara bueltatuko  
berriro eskolara

Sevillara bagoaz  
gure lagunekin  
giraldaraino goaz  
eta oso atsegin  
Sevillan paseatzen  
gabiltza bi sorgin  
txateatuko dugu  
gure gurasoekin

Cuban aurkitu dugu  
makina bat sorgin  
dantzetan egon gara  
ta oso atsegin  
itzultzeak ze pena  
guretzat zenbat min  
ez gara bueltatuko  
nagarrik ez egin

Agur irakasleak  
gu oporretara  
hegazkinean goaz  
Mexiko aldera  
plazara goaz bai ta  
handia ikara  
Agur Mexiko lindo  
buelatuko gara

Hawaien gaude eta  
kriston eguzkia  
Hawaien dago dantza  
eta abestia  
hawaien diru asko  
eta garestia  
etor zaitezte gero  
familia guztia

Londresera bagoaz  
Bai-bai betirako  
Kotxean gu bagoaz  
prestatuak joateko  
hemen Londresen gaude  
benetan ederto  
agur irakasleak  
ez gara itzuliko



**Assa ikastola – Lapuebla de Labarka**  
6. maila

OPORRETAN

Oso gustura gaude  
hemengo festetan  
hemen gaude etzanda  
gustura benetan  
surf egiten ikasi  
gaude marrazoetan  
zu hor lanean zaude  
ta ni oporretan

Dubaien gaude eta  
biak elkarrekin  
eta primeran pasa  
lagun guzkiekin  
kotxeak hartu eta  
ondo pasa egin  
gure kotxeekin eta  
gure txakurrekin

Kaixo! Lagunak gu bai  
goaz Amerikara  
arropa erosteko  
gu Hollywooodera  
hiru neska politak  
gu enroilatzera  
ze ondo gauden gu JO!  
joan behar gara

Orain gaude hementxe  
Miami beti gu  
Ligatu behar dugu  
Seguru-seguru  
maletan daramagu  
pilo bat liburu  
Miami gaude eta  
morro asko dugu.

Kariben bikinian  
gu gaude dotore  
Gu trankil gaude ta zu  
trankil egon ere  
ta nire ama ez bada  
enteratzen hobe!  
Eguzkia dago ta  
oso ondo gaude



**San Bizente ikastola – Oion**  
5. maila

OPORRETAN  
LOROLOROLOROLORO

Ortigosa polita  
bidaia biharko  
hara joango gara  
ondo pasatzeko  
lagunekin kalean  
baita jolasteko  
oporretara goaz  
gu ez bueltatzeko

Tabuliara joan gara  
denok algaraka  
eta zuk egin duzu  
hoberena marka  
hona etorri gara  
Rossi da aparta  
Valentino Rossiren  
lagunak gara ta

Oporretan Hawaiiira  
herritik aparte  
Hawaiiira pasatzera  
hiruzpalu urte  
Hawaien palmerak ta  
ondartzak dituzte  
ez gara etorriko  
iraila heldu arte

Veneziara joan gara  
kontutan izanda  
buelatu behar garela  
gure ikastolara  
orain egingo dugu  
guztiok parranda  
hemen gelditzen gara  
hirurak etzanda

Aspalditik daukagu  
guk gordeta data  
Euskal herrian dugu  
ai eguzki falta  
Miami geratzen da  
bikiniko marka  
hemen gelditzen gara  
hondartzan botata



**San Bizente ikastola – Oion**  
6. maila

**IRAGARKIAK**

Legoak erosita  
gu beti gaude alai  
kolore askotakoa  
mareatzen nau ai  
gu beti ikastolan  
legoak beti jai  
legoak hoberenak  
eta gu ere bai

Rotugailu onak  
koloreztatuak  
oso onak dira ta  
koloretsu askoak  
eta ez dira gastatzen  
dira hoberenak  
erosi estabilo  
rotulagailuak

Red bull ahaztu zaizu  
zenbiltzan jo ta su  
ezin egon altxauta  
red bulla nahi duzu  
lagun bat etortzen da  
ta esaten dizu  
red bullekin hegalak  
izango dituzu

Ta Lotus erlojuak  
kolorezko batzuk  
digitalak badaude  
orratzezkoak guk  
oso merkeak dira  
orduan diru truk  
ordua jakiteko  
lotus erosi zuk



**Bastida Ikastola – Bastida**  
5. maila

***EUSKARAREN EGUNA. Konpromisuak***

***Gaur euskararen eguna da ta  
Konpromisuen garaia  
Euskaraz bizi eta gozatu  
ta gero ospatu jai***

1

Gaur euskararen egun osoan  
Gure euskara maitea  
Konpromezua honako hau da  
Lagunekin mintzatzea

2

Maisu ta andereñoen aurrean  
Euskaraz hitz ta irria  
Anima zaitetze hau lortzera  
Hauxe da Euskal Herria!

3

Ikastolan sartzean euskaraz  
Eta irtetzerakoan  
Ta horrela kurtso bukaeran  
Denak patiora joan

4

Gaur euskararen eguna da ta  
Denak bagoaz Aurrera  
Euskara oso polita da ta  
Animatu ikastera

5

Argitxo txiki gurekin dator  
Bere argia piztu behar da  
Guztion pregoia ospatu ta  
Pozik ipiniko gara

6

Urte osoan egin euskaraz  
Ez bakarrik egunean  
Goazen guztiok hitz egitera  
Etxean eta kalean





**Bastida Ikastola – Bastida**  
6. maila

**Ai zapotxin  
euskaraz hitz egin  
guraso eta  
lagun guztiekin**

Euskara gure hizkuntza  
dantza eta kanta  
gu euskaldun egiten  
gaituena da ta

egun berezia da  
guztioek urduri  
Argitxoren eguna  
Zorionak zuri

**Ai zapotxin...**

Festa egingo dugu  
Euskararen alde  
Gure ikurriña da  
Gorri, zuri, berde

Mahatsetik ardoa  
Daukagu hartuta  
Bihotzetik euskara  
Odol bihurtuta

**Ai zapotxin...**

Ume denek dakigu  
Ta erabili ez  
Euskara hitzegitera  
Animatu zaitetz

Atzo nengoenean  
Gauetz ametsetan  
Euskara erabili  
Leku guztietan

**Ai zapotxin  
euskaraz hitz egin  
guraso eta  
lagun guztiekin**



**Maestu herri eskola – Maestu**  
5. maila

EUSKAL ARTISTAK,  
NOR DA NOR???

Gauza tipikoa da  
Hemen bereziki  
Beraiek badakite  
Hizketan ederki  
Bi pausu eman eta  
Ahoa ireki...  
Eskuak poltsikoan  
Ia ia beti

Argitsuak badira  
Beraiek nabari  
Buelta asko emanez  
Haien buruari  
Asko ematen diote  
Haien eskuari  
Kolorea emateko  
Irudimenari

Guztiok dugu hori  
Benetan atsegin  
Ondo entzuten dugu  
Belarri hauekin  
erritmoa eramaten  
Dute eskuekin  
Musika jotzen dute  
Instrumentuekin

Umore, maitasuna  
Akzio edo drama  
Batzuek badaukate  
Sekulako fama  
Hartu bere artea  
Ta jantzi pijama  
Motxilan eramaten  
Dugu haien lana

Artista hutsak dira  
Behar duzue jakin  
Obra politak mailu  
Ta zintzelarekin  
Nik ere nahiko nuke  
Holako bat egin  
Materia aldatzen  
Dute eskuekin



## Mendialdea Ikastetxea – Kanpezu 5. maila

### TXITXARRA ETA INURRIA

Bazen behin inurri bat  
Jotake etxean  
Eta txitxarra beti  
Kantari kalean  
Bere etxeko gauzak  
Beti amaitzean  
Txitxarra kantari ta  
Inurria lanean

Txitxarra eserita  
Ta kanta kantari  
Ta ez zion beldurrik  
Berak neguari  
Inguruan bazeukan  
Janari ugari  
Txitxarrak burla egiten  
Dio inurriari

Ta burla egin zion  
Kalean pasatzean  
Pisu asko zeraman  
Inurriak gainean  
Orduan esan zion  
Utzi ni pakean !  
Ze ikusiko duzu  
Negua heltzean!

Negua iritsi zen  
Zelako arazoa  
Inurriak janariz  
Dauka etxe osoa  
Txitxarra kalean ta  
Hauxe frakasoa  
Ez du babeslekurik  
Txitxarra gaixoa

Txitxarrak zuenez ai  
Oso tripa hutsa  
ta berak ez zuenez  
janariaren kutxa  
inurriarengana  
joan zen haruntza  
eta eskatu zuen  
beraren laguntza

Txitxarra hor zegoen  
hotzez eta txarto  
inurriak pentsatu  
lagundu beharko  
txitxarrak esan zuen  
bai eskerrik asko  
eta ikasi zuen  
hurrengo urterako



**Mendialdea ikastetxea – Kanpezu**  
6. maila

Aurten eduki dugu  
Gela politena  
beste gelak baino askoz  
handiagoa dena  
eskertzen da arreta  
zuek guztiena  
bat, bi, hiru, lau, bost, sei  
hauxe da azkena  
LH amaitu da  
Poza eta pena

Jon eta Iratik guri  
Lagundu egunero  
Aingeru eta Oihane  
Kantatzeko bero  
Susana ingelesa  
Bea patatero  
Aupa Mireia Epelde  
Eta Ana Acedo  
Ondo pasatu dugu  
Zuekin urtero

Bertso hau abesteko  
Tarte hau apropos  
Klaseak bukatzeko  
Gaude denok gogoz  
Berri ona ematera  
Oraintxe gu gatoz  
Hemen gera zaitzete  
Ez bazaudete ados  
Orain piztinara ta  
Oporrak badatoz

Oporrak gertu daude  
Bagoaz laguna  
Ondo pasazue udan  
Heldu da eguna  
Naiz ta zuek ez jakin  
Talde txapelduna  
Herentzian gela bat  
Da uzten duguna  
Zelako tragedia  
Eta poztasuna

Guk oraintxe joan behar dugu  
Agur mateko liburu  
Eta guztia aprobata  
Hori da gure helburu  
Zuek egon zaitzete hor lasai  
Zaudetela oso seguru  
Eskerrik asko guztiagatik  
Asko maite zaituztegu

Eskualdeetako bertso-eskolak  
2015-2016 ikasturtea

ARABAR ERRIOXAKO  
TXANDRIO BERTSO-ESKOLA  
Oiongo IKA euskaltegia  
Diputazioa 32  
31016 OION

Tel: 945 010505 (Arabako Bertsozale Elkarteak)  
Arabako Bertsozale Elkarteak)  
e-posta: araba@bertsozale.eus



ARABAKO MENDIALDEKO BERTSO-ESKOLA  
Kultur Etxea  
01140 KANPEZU  
Arduraduna: Julen Zulaika  
Tel. 945 010505  
(Arabako Bertsozale Elkarteak)  
e-posta: araba@bertsozale.eus



AMAIA ZENTROA  
Pérez Galdós z/g  
01002 GASTEIZ  
Tel: 945010505 fax: 945288275  
Mug: 688695875 - 688616531  
e-posta: araba@bertsozale.eus  
www. Bertsozale.eus/araba

